

EUSKERAREN ERABILERA ZUZENA: IKUSPEGI JURIDIKOAK

Egoitza, (Bilbo), 1994.02.25

Andres M.^o Urrutia Badiola

Jaun-Andreok, arratsalde on guztioi.

1. SARRERA

JAGON sailkideok, jardunaldi hauei izenburua jartzeko unean, gure gorabeherak izan genituen. Azkenean, hala ere, batzuen eta besteen amore ematea gauzatu eta gero, hortxe duzue gure emaitza: “Euskararen erabilera zuzena”.

Beste hizkuntzetan sortutako adiera nolabait euskal ordainez jantzi behar eta “hizkuntzaren kalitatea edo kalitatea” delako hori, gurean, “erabilera zuzena” delako horretan itxuraldatu genuen, lehenengo hura euskaraz ordezkatu nahian.

Kritikak kritika eta iritziak iritzi, “erabilera zuzena” izendatu dugun honen inguruan zer dagoen ere lehenbailehen zehaztu beharra dugu, gure haria behar den bezala garatu ahal izateko. Kontzeptua ahal den neurrian zehaztu, eta gure gaurko eginkizun diren hizkuntzaren erabilera zuzenaren zertzelada juridiko-administratiboei heltzeko tenorean izango gara.

Zer dugu, beraz, hizkuntza, eta gure kasuan, “euskararen erabilera zuzena” delako hori? Honako hau, ez dugu, inola ere ez, norabide bakarrekoa ideia. Modu askotara ulertua eta zehaztua izan bada ere, amai-gabeko ñabardurak egin daitezke honen karian, gutariko bakoitzak “erabilera zuzentzat” zer hartzen duen edo “erabilera zuzena” delako horren barnean zer baztertzen duen bidenabar adierazteko.

“Erabilera zuzena”, gainera, modu eta molde bereizi batean taitu behar dugu euskararen ingurugiroan, ez baita erraza kontzeptu honek bestelako hizkuntza batzuetan hartzen duen sentidu berbera, gurean, besterik gabe, goitik behera ezartzea.

Egia da, izan ere, “erabilera zuzena” delako honen inguruko arazoak hizkuntza askotan kezka eta gogoetagai izaten direla. Honetan ere, hizkuntza guztiek, txiki nahiz handi, amankomuneko gatazkak dituzte. Begibistakoak dira, besteak beste, Frantziako edo Espainiako hizkuntza nagusiek beren barruan bizi dituzten tirabirak. Hortxe leudeke, besteak beste, eta urrunera joan gabe, belaunaldien arteko hizkuntza galerak, arautik aldenduriko hizkuntza moldeak eta abar luze bat. Hala ere, gurea bezalako hizkuntza gutxitu eta gutxietsitako batentzat, arazoak are korapilatsuagoak bihurtzen dira “erabilera zuzena” zein den formulatu eta azaltzerakoan, elkarrekin guruzatzen baitira euskararen esparruan euskalkien auzi-mauziak, euskararen beraren galera prozesua eta zer esanik ez, etengabe egoera askoz okerrago batera eramaten gaituen aldameneko erdaren eragina.

Horrexegatik, hain zuzen ere, gero eta premia larriagoko kontua dugu “erabilera zuzenarena”, beharrezkoa baita kontzeptu hau guretik formulatu eta gure egoerari egokitu, hortik atera daitezkeen ondorioak guri ere aplikagarri izan dakizkigun.

Horretara beren-beregi jarrita, nahikoa dugu bazterretara begirada-txoa bota eta “erabilera zuzena” delako hori zertan gauzatu den ikustea. Hortxe dugu, aspaldi batean Louis-Jean Rousseau-k kanadiar terminologoa azalduko formulazioa, gure zereginetan baliagarri izan daitekeena.

Azal dezagun, beraz, formulatxo hori, hizkuntzaren erabilera zuzena autore honen ustez zertan datzan jakiteko:

“Kontzeptu malgua dugu hau, arauaren auziarekin lotua, araua preskriptiboa zein gizartekoa izan, gizarteak berak erabili behar duen hizkuntzaren ideia inguruan mamitzen dena.”

“... kalitatezko hizkuntza dugu beraz, bere zereginari hobetoen egokitzen zaiona, (ezagupidea eta kontzeptualizazioa, komunikazioa eta adierazgarritasuna bitartekoak direla), alegia, sistemarekin ados gauzatzen dena, sistema hori denpora zein espazioan zehar nola bilakatzen den kontuan hartuta” (1).

(1) AA. VV. *Actes du colloque TRADUCTION ET QUALITÉ DE LANGUE*, Quebec, 1983, Conseil de la Langue française. Honen barruan dugu aipaturiko testua in Louis-Jean Rousseau: “Les incidences de la traduction sur la terminologie au Québec”: “Il s’agit donc d’un concept plutôt flou qui se rattache à la question de la norme, qu’il s’agisse de la norme prescriptive ou de la norme sociale, de l’idée que se fait la société de la langue qu’elle devrait promouvoir et utiliser” ... “una langue de qualité étant celle qui est le mieux adaptée ‘à son objet, à ses fonctions (connaissance et conceptualisation; communication et expression), celle dont la réalisation est conforme au système, tel qu’il évolue dans le temps et dans l’espace.” 82. orr.

“Traduttore, tradittore” dio esamolde zaharrak. Neronek ere, horretan kokatuta, gaur entzule zaituztedan itzultzaile guztiei barkamena eskatu behar. Baina aldi berean ere, formulazio honetatik berebiziko emaitza eskuratu ahal dezagun aldarlean gure burua jartzeko erregua luzatu, “euskararen erabilera zuzena” delako autu honetan, honek eman baitie zaiguke gure haria iruteko molde osagarri eta betegarria ere.

Beraz, zabalena gertatzen den gunetik estuena bihurtu zaigun esparrura igaroz, gure buruari galde diezaiokegu nola uztartzen diren “euskararen erabilera zuzena” delakoaren kontzeptu hau eta zuzenbideak berau bermatzeko eskaini ditzakeen baliabideak.

Erantzuna, ez bairik gabe, azken urteotan Euskal Herrian bizi izan dugun boteregune publiko propio batzuen agerpenean dago, kontuan hartuta, beti ere, boteregune publiko horiek, historian zehar lehendabizikoz behintzat (aurrekin ezagun batzuk salbuetsita, noski), beren burua, neurri batean zein bestean, euskalduntzat erakusten dutela.

Uztartze lan horretan, gure iduriko eta besteak beste, bi modutara joka daiteke: alde batetik, aurretiaz finkaturiko euskararen hizkuntz araua lege bihurtuz, boteregune publiko “euskaldun” horiek eskuratu duten aginteari esker, edo bestela esanda, hizkuntza horren normatibizazio lanean jardunez eta bestetik, boteregune publiko horien adierazle diren osagarri ohizko eta ezagunetan, hots, beraien botere legegilean, administrazioan eta abarretan euskararen erabilera zuzena zainduz.

Lehenengoari, hau da, normatibizazioari, Catalunyako Llei 8/1991, de 3 de maig, sobre l'autoritat lingüística de l'Institut d'Estudis Catalans delakoak bere atarian honako hauek eskaintzen dizkio, zehatz-mehatz zer den adierazteko “... hizkuntzaren erabilerarako ingurugunea eta hizkuntzaren lurralde osoan eta edozein mailatan hizkuntzaren beraren garapena bermatzen duena, beharrezkoa den koherentzia eta bateragarritasunaren barnean ...” (2). Beraz, edozein erabilera zuzenerako sustengu eta euskarri ezinbestekoa, erroko zutabea.

Bigarrenari, lege berberak ematen dio bere zeregina: “... Hizkuntzaren osotasuna honela bermatzen dela araudiaren barnean, malguago gertatzen da hizkuntza, horren lantze bidean dabilzan kolektibo desberdinek —bakoitza bere erantzunkizun pean, jakina— hizkuntz errealizatorako aukera eta moldeak ahalbideratzeko, ereduak jarritz, ba-

(2) Llei 8/1991, de 3 de Maig, sobre l'autoritat lingüística de l'Institut d'Estudis Catalans. “Però la normativa fisada per l'Institut d'Estudis Catalans constitueix el marc per al funcionament de la llengua i n'assegura el desenvolupament amb la coherència indispensable en tot el domini lingüístic i a qualsevol nivell.”

koitzak xedetzat dituen helburuak modu eragingarriago batez erdiesteko..." (3).

Nola, ordea, gauzatu hori gure kasuan? Honela, gure iduriko:

1) Lehenengoz gure ardura jarriz, Rousseau-ren formulazioan ageri den lehendabiziko elementuan, hots, hizkuntz arauaren muinean, arau hori, esan legez, erabilera zuzenerako oinarririk sendoenetarikoa baita. Bide honetatik eta gaingiroki bada ere, euskararen arau hori gurean nola formulatu den orain arte eta bere zabaltze prozesuan egungo ordenamendu juridikoak araudi honi zernolako babesa eman diezaiokeen izango ditugu gure lehen aztergaiak. Azken finean, "erabilera zuzena" bermatzeko ezar daitekeen arau edo kanon delakoaren indar linguistikosoziala, eta areago ere, indar juridikoa, horretarako beharrezkoak diren etorkizuneko tresna zenbaitzuk ere azalduz.

2) Bigarrenez, astiz eta betaro ez bada ere, "erabilera zuzenaren" bigarren esanahia zehaztuko dugu arlo juridikoan, hau da, "erabilera zuzena" delako hori funtzio legegilean nola gara daitekeen adieraziz. Honetan ere, euskarak behar dituen egokierak aztertuko ditugu, zehaztasun konkretuz baino, lerro nagusi soiletan. Hain zuzen ere, hementxe dago, gutariko askorentzat behinik behin, itzulpenetik sorkuntzara doan bide luzea edo beste berba batzuekin esanda, *itzulpen bitarteko gizarte batetik euskarazko adierazbideko gizarte batera doan tartea* (4).

3) Hirugarrenez, eta aurreko hariari ten eginez, hitzaldiaren zati ederra emango diogu, Euskal Administrazioaren arloan, "euskararen erabilera zuzena" delako honen inguruko hausnarketak azaltzeari. Esan gabe doa, begibistakoa baita gure artean, azken urteotako esparrurik garrantzitsuena dela hori euskararentzat, lehen aipaturiko boteregune publiko horiek helburutzat hartu dutelako euskararekiko zeregina.

Honela beteko genuke, gure ustez, lehen azaldueriko hura, hau da, modu askotan ulerturiko "euskararen erabilera zuzenaren" ideia hori, bere sare juridiko-administratiboan kokatzea, jakinik, beti ere, sare horren zuloak edo oboak, gaur egun bederen, handiegiak direla euskararen berme osorako.

(3) Llei 8/1991, de 3 de maig, ibidem: "Salvada així la integritat de la llengua dins el marc de la normativa, aquesta és prou flexible per a permetre que els diferents col·lectius afectats pel conreu d'aquella estableixin —sota llur responsabilitat— opcions i concrecions de realització lingüística, en forma de models, amb el fi d'acostar-se amb més eficàcia als objectius que persegueixen."

(4) Ikus GEMAR, Jean Claude: *Les trois états de la politique linguistique du Québec - D'une société traduite à une société d'expression*, Québec, 1983. Conseil de la Langue Française, Dossiers, 17. zenbakia.

Dena den, sarrera moduko hau bukatu baino lehenago, gogoratu beharra daukat, ezinbestean, Joseph Turi kanadiar legegizonak II. Euskal Mundu Biltzarrean planteatu zuen galdera berbera baina gurera ekarrita, alegia, euskararen “erabilera zuzena” delako horrek juridikotasunik ba ote dauka? Eska al dakioke Administrazioari zein administratuari “erabilera zuzena” delako horren barruan jokatzea, hizkuntz arauak betetzea ala nahikoa da, edozein harreman juridikotan euskaraz egitea, euskara hori edozelakoa bada ere? Gure tartean arazo hau planteatu ere ez da egin, eta etorkizuneko kontua dirudi, egungoa baino.

Nolanahi ere, Turik Kanadako eta Frantziako jurisprudentziak egin-dako epaitze lanetik hauxe ekarri zigun kongresu hartara, ondorio gisa, honako hau: Edozein kasutan ere, “frantsesez idatzitako testuak” esan nahi du, legearen ikuspegitik, frantses onargarri eta ulergarri batean idatzitako testua, frantses zuzenean idatzia izan ala ez. Beraz hizkuntzaren mezua da (français-message) nagusi jurisprudentzia horretan eta ez, inola ere, hizkuntza horren forma zuzena (français-medium). (5)

Horrexegaitik eskatu du, eskatu ere, kanadiar legegizon honek, hizkuntzaren erabilera zuzenari dagokionez, “hizkuntzalarrien eta legegizonen elkarrekiko lana, hizkuntz legearen helburua dena, hots, standarizazioa, lortua izan dadin, bestela kultur amets hutsa bihur baitaiteke honako hau” (6).

Gai horren inguruan gogoetatzea eta hausnartzea dira, besteak beste, jardunaldi hauen helburua eta horiek izango dira, izan ere, gure saio honen bizkarrezurra.

2. EUSKARAREN HIZKUNTZ ARAUA, IKUSMIRA SOZIAL ETA JURIDIKOTIK BEGIRATUTA.

2.1. Hizkuntz arauaren baldintza orokorrak: euskararen araugintza

Jakin euskal aldizkariaren azken zenbakian, JAGON sailean sailkide dudan Mikel Zalbide prestuak argiro gogoratu digu, joandako urtearen

(5) AA.VV. EUSKARA BILTZARRA. II. ATALA. HIZKUNTZA ETA GIZARTEA: II. ALEA. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia, Gasteiz, 1988. Ikus bereziki liburu honetan honako hau: TURI, J.G.: “*La ‘qualité’ de la langue est-elle juridiquement appropriable?*” 39. orr. eta jarr.

(6) TURI, J.G., ibidem. Hona hemen han idatzitakoa: “... Il s’agit là d’un domaine où les juristes et les linguistes se doivent de collaborer entre eux, si l’on veut que l’un des objectifs de toute lou linguistique eshaustive, la standardisation de la langue ou des langues visées, puisse être réalisé juridiquement.”

balantzea egiterakoan, euskarak bizi duen hizkuntz arauarekikotasunaren birpiztea:

“Euskararen batasun-bidea, idazkera zuzena, Euskaltzaindiaren gomendio-arauak... pil-pilean ditugu berriro. Hitzak hizpidea ekarri du ostera, aspalditxoko partez, corpus-plangintzaren alorrean bare-antxean geneukan euskal baratzer. Eztabaida askotxo piztu da bazterretan, azken urtealdi honetan, behinola hainbat esames eta elkar ezin ikusi sortutako batasun-bidearen inguruan.” (7).



Ezkerretatik eskumatara: Patxi Uribarren, Andrés Urrutia, Mikel Zalbide, Jose Luis Lizundia eta Marian Lizarralde.

Ildo beretik joanez ere, Zalbidek batasun-bide horretan hizkuntz arauak bete behar dituen baldintzak gogorazi dizkigu maisutasun borobilez:

- Bateratze-lanak: *“Bateratze-lanak, lehenik eta behin, benetako premiei erantzun behar die”*

(7) ZALBIDE, M.: “Badugu zeinek agindu”. *Jakin*, 79, (1993), 84-90.

- Batasun-erabaki: *“Batasun-erabakiak edo gomendioek badute, gainera, bete beharreko bigarren baldintzarik: gogozoak gertatu behar dute aukerok”*

- “Hirugarren baldintzarik ere eska dakioko, eskatzen hasita, batasun-erabakiak (orobat gomendioak) hartzeko eskua eta eginbidea duenari: ikasi ahal izango diren moduko erabaki-azalpenak ematea” (8).

Gurean, arau horren aldeko lana Euskaltzaindiarena izan da historian zehar. Gizartearen indarrak ahaztu eta alboratu gabe, hala nola idazle, ikerle, hezkuntza alorreko profesionalak eta abar, euskarak, azken ehun urteotan, Euskaltzaindian izan du araugilea.

Beraz, euskararen “corpus planing” delakoa, Hizkuntz Akademia baten menekoa izan dela ezin uka. Esan gabe doa, noski, boteregune publiko eta euskaldun baten gabezia historikoa ere bitartekoa izan dela.

1920. urtean Euskaltzaindiaren sortarauetan honela idatzi zen, helburuei zegokienez:

1. “Euskera edolako bizipide eta gizartekoetan azkar eta garbi eutsita zabaltzea, ta euskal-idazkuntza agerbide orotan pizkortzea. 6. Artaraxoxe sail aunek: a) ekingo du euskal oroen odolez hasitako euskal-eredu bat gertutzen” (9).

1954. urtean ere, honetara:

4.º “A la Sección tutelar corresponde velar por la conservación, difusión y pureza de la lengua en todos los órdenes de la vida y de las relaciones sociales y fomentar la literatura vasca en todas sus manifestaciones”.

5.º “Con este fin:

a) Prestará preferentemente ayuda a la fijación de la lengua literaria; uno de cuyos medios habrá de ser la facilitación (por parte de la Academia) y orientación de los escritores actuales respecto a los mejores textos del euskera escrito” (10).

1972. estatutuetan, formulazioa hauxe da:

Artículo 1.º. “La Academia de la Lengua Vasca, fundada en 1918 bajo los auspicios de las cuatro Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, navarra y Vizcaya, es una institución que tiene por fines:

(8) ZALBIDE, M. Ibidem.

(9) EUSKALTZAINDIAREN SORTARAUAK. Bilbao 1920, Euzko Argitaldaria

(10) ESTATUTOS Y REGLAMENTO DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA aprobados en reunión de 24 de agosto de 1954.

b) dar orientaciones y normas para el cultivo literario del mismo.

d) laborar por la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, gramática y grafía” (11).

Azken estatutuetan ere, 573/1976 otsailaren 25eko Dekretuak onarurikoetan, gauza bera esaten zaigu lehen artikuluan:

“Lehen artikulua. Euskaltzaindia instituzio bat da, 1918. urtean Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko lau Diputzaioen babespean sortua. Honako xede hauek ditu helburutzat:

b) Hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea.

d) Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea” (12).

Ezagunak dira eta ez noa ni hemen ezaguna den zerbait errepikatzera, artikulua honen bilakaeran Euskaltzaindiak egin dituen kodifikazio eta batuketa lanak (13). Azken batean, araugintza hori gatazkatsu gertatu zen baina gaur egun eta hizkuntza idatziari dagokionez, “arau-gomendio” multzoa finkatuta dugula esan daiteke, osorik ez bada ere.

Zernolakoa, aldiz, multzo hori? Egia esan, Euskaltzaindiak bere historian zehar mota askotako ebazpen, aholku, arau eta gomendioak eman dituela. Ordurarte egindako lana bildu nahian, Jose Luis Lizundiak laburtu eta bereiztu zituen 1977. urtean lau maila nagusi hauek Euskaltzaindiaren araugintzan: “1. ‘Onartze Akademiko osoa’. 2. Akademi Batorde lana. 3. Onikusi edo Oneritzia. 4. Gainbegirada” (14).

Lehen alorrari dagozkionetan kokatuko lirateke orain arte gure Akademiak eman dituen arau eta gomendioak, azken bi hauek eta beraien izaeratik bertatik eratortzen denez, indar desberdinetakoak izanda ere.

(11) ESTATUTOS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA, *Euskera* XVII, (1972), 191-198.

(12) EUSKALTZAINDIAREN ARAUTEGI ETA BARNE-ERREGELAK, Bilbo, 1982. Euskaltzaindia.

(13) Ikus, ZUAZO ZELAIETA, K. *Euskararen batasuna*. Bilbo 1988, Euskaltzaindia. Gogora ekarri, bestalde ere, orain dela gutxi, Euskaltzainburuak esandako hau: “5. Azkenik Euskaltzaindia delakotz hizkuntzaren zaintzalea, hiztegi espezializatu guziek behar lukete Euskaltzaindiaren oniritzia ukan, batasun bat ukan dezaten denek ortografiaren aldetik edo joskeraren aldetik.” in HARITSCHELHAR, J.G. *Administrazioaren eginbearra hizkuntz minorizatuaren etorkizunean*, Eusko Jaurlaritza, IVAP, Bilbao, 1993.

(14) LIZUNDIA, J.L.: “Akademia-onartze maila desberdinez”, *Euskera* XXII, (1977), 761-767.

2.2. Hizkuntz aragintzaren argitaratze lana

Argitaralpenari buruz, gauza jakina eta guztion ezagupidekoa da gainera, Euskaltzaindiaren erabakiak, bere Estatutuek hala aginduta, “Euskera” aldizkarian agertzen direla. Honela zehazten dute Barne-Erregelek honen zeregina.

“20. Euskaltzaindiak boletin bat argitaratzen du, Euskera deritzona eta haren agerkari ofiziala dena. Maizago nahiz bakanago atera daiteke, agertzeko diren dokumentu eta lanek nola edo zer eskatzen duten” (15).

Euskera dugu, beraz, Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala eta hor gauzatzen da, besteak beste, euskararen araua ezagutu ahal izateko egarri bizia dutenen aselekua.

2.3. Euskararen hizkuntz aragintza, Euskal botere publikoaren aldetik

Euskararen inguruko aragintzaren baldintzak aurretiaz zehaztu baditugu ere, azken urteotako gertaera dugun bestelako hori, hau da, euskal boteregune publikoen sorrera, esanguratsu bilakatzen zaigu orain.

Izan ere, jakin beharrekoa dugu gure ikuspegitik, zein modutan izan daitezkeen lagungarri boteregune publiko hauek hizkuntz arau-gomendio hori “publiko” eta “ofiziala” egiteko. Zernolako lanabesak eskaintzen dizkigu ordenamentu juridikoak “arau” hori bermatzeko eta ondorenez, euskararen erabilera zuzena garatzeko?

Galdera honek Euskal Herriko ordenamendu juridikoa aztertzeraz garrantzitsua, nahitanahiez:

2.3.1.) Euskal Komunitate Autonomoa.

Euskarari dagokion marko edo ingurugune juridikoa, hizkuntz araua-gomendioari eta honen sortzaile nagusi den Euskaltzaindiari dagozkienak honako hauek ditugu, nire ustez:

- Euskal Herriko Autonomi Estatutoaren 3/1979 abenduak 18, Lege organikoa.

“6.4. artikulua: euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da aholku-emale.”

(15) EUSKALTZAINDIAREN BARNE-ERREGELAK in *Euskaltzaindiaren arautegi eta barne-erregelak*, Bilbo, 1982. Euskaltzaindia.

• Azaroaren 24eko 10/1982 oinarrizko LEGEA, Euskararen erabilpena arauzkotzekoa.

“30. atala: Jaurlaritza Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen lur-eremu osorako idatzizko hizkuntza ofizial denez, euskararen batasun eta arauzkotasunaz arduratuko da, Euskal Herriaren kultura ondarearen funtseko zati diranez, euskalkiei bizi diren tokietan sor zaien beirune kaltetan gabe.”

Ezaguna da Gernikako Estatutuaren inguruan sortu zen eztabaida, erdarazko “la” artikulua ezabaketa izan zela eta (16). Hala ere, testu horretan Euskaltzaindiaren zeregina ez zen bete-betean onartu.

Are ezagunagoak dira, ildo bereko bestelako kontuak, hau da, Euskararen Normalkuntzarako Legea eztabaidatze prozesuan Euskaltzaindiari aginte linguistikoa eman nahiaren ahalegina eta haien porrota (17).

Nolanahi ere, Euskaltzaindiaren statusak horretan iraun du eta Eusko Jaurlaritzari egokitu zaio, neurri handi batean bederen, honen garrantzia.

2.3.2.) Nafarroako Foru Komunitatea.

Honetan, *18/1986 Foru legea, abenduaren 15koa, Euskarari buruzkoa* – *Ley del Vascuence* delakoan, Euskaltzaindiaren aldekoago den formula baten aukera egin zen, ezbairik gabe.

“3.2. Botere publikoek hizkuntz araua errespetatuko dute Foru Lege honetan xedatutakoa eta hura garatzen duten xedapenen ondorio diren iharduketetan.”

“3.3. artikulua: Hizkuntz arauak ezartzeko ondorioetarako Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku-emaile ofiziala eta berari eskatuko dizkiote botere publikoek aurreko idaz zatian ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak.”

(16) Ikus TAMAYO SALABERRIA, V. y C. *Fuentes documentales y normativas del Estatuto de Gernika*, Gasteiz 1981, Publicaciones de la Excma. Diputación Foral de Alava. Ohartzekoak, Euskaltzaindiari dagokionez, 243. orr. eta jarraikoak. Estatutuaren formula dela eta batez ere “la” artikulua ospetsu horren bidea, jarrai daiteke liburu berean 668. orr. eta jarraikoetan.

(17) Ikus EUSKO LEGEBILTZARRA: *Ley Básica de normalización del uso del euskera*, Vitoria/Gasteiz 1991. Colección trabajos parlamentarios-6. Ed. Eusko Legebiltzarra. Liburu honetan ditugu euskararen erabilpena arauzkotzeko legeari aurkeztu zitzaizkion aldatutako artetan honako hau:

Enmienda n.º 51 (EE): 2) “La Real Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia) será miembro nato del «Euskararen Kontseilu Gorena» y la autoridad competente en todas las cuestiones sobre normativización, actualización y correcto uso del euskara”. Eztabaidan, hala ere, ez zuen honek aurrerabiderik izan.

Hala ere, “aholku-emaile” izaera honetatik haruntzago joanez geroz, bideragarri izan daiteke, gure ustez, euskararen erabilera zuzenari berrizko euskarria emango liokeen formulazio juridiko batera heltzea. Gilzarria, besteak beste, artikulua horien garapenean datza.

Baina garapen horren egikeran aterabide edo konponbideak maila, esanahi eta edu askotakoak izan daitezke.

2.4. Kanpoko ereduak: Frantzia, Quebec, Galizia eta Catalunya

Kanpokoak honetara ekarriz, ez da gauza bera **Frantzia** frantses hizkuntzak gozaten duen kontzeptzio juridikoa eta gurea, han hizkuntza frantsesa, sistema juridiko osoaren balioa dugulako, balio horren babesarako ondorio juridiko batzuk asmatu direla, ordenu publikoaren ekarpenak diren isunak eta zehapenen bitartez (18). 1975. urteko abenduaren 31ko legea dugu lorratza horretan pausurik adierazgarriena, arestian eman den konstituzioaren erreforma eta egunotan bizi dugun Toubon lege proiektua ere bazterrean utzi gabe (19).

Zilegi bekit esatea, hala ere, lege honek gehiago bideratzen duela bere zeregina kanpoko hizkuntzen (batez ere ingelesa) presentzia galaraztetik, hizkuntzaren erabilera zuzena bermatetik baino. Ohargarri, baita ere, lege horren inguruan sortu den terminologia juridiko-administratibo frantsesa lantzeko prozesua (20).

Esan beharra dago, beste aldetik ere, honek ez lukeela gure Hegoaldeko sistema juridikoan aukera handirik izango, konstituzioan dauden gaztelera ezagutzeko betebeharra dela medio, batzuk, egunotan, auzi hau ostera ere gogorazteko aukera aparta eskaini digutela.

Askoz hurbilagokoak lirateke guregandik, Quebec-eko eskema eta Estatuko beste Komunitate Autonomo batzuk saiatuikoak.

Quebec-ekoaz jardutea luze joango litzaiguke. Hala ere, bizpahiru zertzelada azaldu behar, “erabilera zuzenaren” inguruan, hango hizkuntz araua nola hezurramitzen den jakiteko.

(18) Ikus GRAU, R.: *Le statut juridique de la Langue Française en France*. Québec 1981, Éditeur officiel du Québec. Bereziki 35 orr. eta jarr.

(19) Loi Constitutionnelle n° 92-554 du 25 Juin 1992: *La langue de la République est le français*.

(20) Lege horren ondorenez dugu frantsesaren hiztegi “ofiziala”, berrikitan argitaratua izan dena: *Dictionnaire des termes officiels de la Langue française*. Paris, 1994, Journal Officiel de la République Française.

A) "Hizkuntzaren erabilera zuzena" berebiziko kezka dugu "Charte de la langue française" testuaren atarian, honela esanda:

"Batzar nazionalak aitortzen du, Quebecarrek hizkuntz frantsesaren erabilera zuzena bermatzeko duten borondatea". (21).

B) Gerokoan ere, erakunde bereziak sortzen dira, hizkuntzaren kalitatea bermatzeko, batez ere, terminologiaren aldetik, honetan zehazten baita nagusiki "Office de la langue française" delakoaren zeregina. Honela, boteregune publikoek beren arau-gomendio linguistikoak sortzen dituzte, batez ere, espezialitateko kontuetan (22).

C) Terminologiaren aldetik, bereziki, eskuhartze ofiziala izan da eragilerik nagusia, *Office de la langue française* delakoaren bitartez. Honen lana, terminologia finkatzerakoan behinik behin, bi moldetan egin izan da: normalkuntzarako erabakiak hartuz, termino bati buruzkoak (*normalisation*), berauek betebeharrekoak eginez eta gomendio hutsak emanez baita ere (*avis de recommandation*), indar eragilerik gabekoak (23).

Catalunyan eta Galizian, aldiz, filosofia beste alde batetik etorri zaigu, hau da, herrialde bakoitzean zeuden Euskaltzaindiaren antzeko erakundeen lana legeztatetik. Honela, Institut D'Estudis Catalans eta Real Academia Galega eta Instituto da lingua galega-k emandako hizkuntz arau-gomendioak lege indarrekoak ditugu Komunitate Autonomo horietan, molde diferenteetan bada ere.

Galizian, hizkuntz araugintza legeztatzeko arau nagusia "Decreto 173/1982, de 17 de noviembre, sobre a normativización da Lingua Galega" dugu (24).

(21) Charte de la langue française. Québec. Preamble:

"L'Assemblée nationale reconnaît la volonté des Québécois d'assurer la qualité et le rayonnement de la langue française".

(22) Ibidem art. 100: "Un Office de la langue française est institué pour définir et conduire la politique québécoise en matière de recherche linguistique et de terminologie et pour veiller à ce que le français devienne, le plus tôt possible, la langue des communications, du travail, du commerce et des affaires dans l'Administration et les entreprises."

(23) Art. 118: "Dés la publication à la Gazette officielle du Québec des termes et expressions normalisés par l'Office, leur emploi devient obligatoire dans les textes, les documents et l'affichage émanant de l'Administration ainsi que dans les contrats auxquels elle est partie, dans les ouvrages d'enseignement, de formation ou de recherche publiés en français au Québec et approuvés par le ministre de l'Éducation ou par le ministre de l'Enseignement supérieur et de la Science."

(24) Testu osoa in Xunta de Galicia, Consellería da Presidencia; *Normativización da Lingua galega*, Santiago 1985, Servicio Central de Publicacións. Hona alderatzen ditugu, besteak beste, testu horren honako artikulua hauek: "Artigo primeiro.—O Acordo da Real Academia Galega e do Instituto da Lingua Galega, aprobado na sesión conxunta de ambas Institucións celebrada o día tres de xullo de mil novecentos oitenta e dous, que nas súas

Bere irakurketatik atera ahal ditugun ondorioak honako hauek dira:

1) Galizian onartzen diren arauak, arau konkretu batzuk dira, data konkretu batean finkaturikoak. Araua, gainera, batasun ortografiko eta morfologikoari dagokio.

2) Arau horiek, berez onartzen dira gainera, kanpoko beste inolako araudi batera igorpenik egin gabe. Dekretu horren eraskin gisa agertzen diren arauak dira, izan ere, lege bihurtzen direnak.

3) Arau horien geroko garapenak, dena den, berriro ere botere publikoaren onartzea eskatzen du. Are gehiago, Dekretu honen ostean etorri zen hizkuntz normalkuntzarako legearen xedapen gehigarria irakurriz geroz.

4) Arau hauek, hezkuntza sailean dute derrigorrezko indarra, horretarako ere aldi baterako salbuespenak eginez.

Laburbilduz, beraz, botere publikoak bereak egiten ditu Real Academia Galegak eta Instituto da Lingua Galegak buruturiko hitzarmen zehatz bat, bere hizkuntz araua eginez eta geroko aldaketak ere botere publikoaren menekoak geratzen direla.

Catalunyan, ostera, testu nagusia dugu lehen aipaturiko legea-Llei 8/1991 (25). Lege laburra, korapilatsua, gure artean aparteko zirrara sortu ez duena. Duela bi urte, argitara berri zela eta, iskanbila zenbait sortu zituen harek Catalunyan, eta baita ere ekarri, beste alde batetik, Institut D'Estudis Catalans delakoaren dei zabala (26) denon laguntza eskatuz

grandes liñas é recollido no Anexo do presente Decreto, queda aprobado como norma básica para a unidade ortográfica e morfolóxica da Lingua Galega.

Artigo cuarto.—As normas aprobadas polo presente decreto son da ensino obrigado en tódolos centros escolares de Galicia sobre os que teña competencia a Comunidade Autónoma e exténdese a tódolas áreas e actividades,

Artigo quinto.—Os libros e material didáctico que deban ser autorizados conforme á normativa vixente deberán axustarse ás normas aprobadas polo presente Decreto.

Artigo sétimo.—A Xunta de Galicia poderá autorizar aquelas publicacións que total ou parcialmente se aparten da normativa aprobada, tendo en conta razóns de índole histórica, didáctica, ou outras semellantes, e sempre que obedezan ó criterio de respetar textos literarios ou doutra natureza que foron publicados antes da entrada en vigor da presente norma.”

Ikus baita ere: Real Academia Galega e Instituto da Lingua Galega: *Normas ortográficas e morfolóxicas do idioma Galego*, Vigo 1985.

(25) Ikus lege honen inguruko iruzkinak in URRUTIA, A. : “Euskararen barne-normalkuntzaz zertxobait”, *Karmel* IV, 1991, 75-80.

(26) Dei horren testua in “Declaració arran de la llei sobre l'autoritat lingüística de L'IEC (Acord del 17 de maig de 1991)” in *Biblioteca Filològica, XXVII*, Barcelona 1993, Institut d'estudis catalans, 13-16 orr. Horren lekukotza badugu aldizkarietan ere, hala nola, TORRENT, A.M. “L'Autoritat de L'IEC i L'ús social de la llengua catalana”, *Serra d'or*, 381, (1991), 11-12.

hizkuntza normatiboaren eraikuntzan. Orduan esan nituenak honetara aldatuz, zera esan genezake lege honen ginean:

A) Esamolde katalana zehazten da hizkuntzaren normatiba ezartzeko erakundea "Institut D'Estudis Catalans" dela esanez. Ez ordea, gurean bezala, "consultivo oficial", erakunde gisa, "encarregada" baino. Beraz, agindu berezia da honako hau, Catalunya botere publikoak erakunde honi ematen diona, erakunde honek izan ditzakeen bestelako funtzioak errespetatuz.

B) Institut D'Estudis Catalans delakoaren normatiba Generalitateko eta Estatuko Administrazioek ezezik, gainerakoek ere (hala nola ente autonomoa eta administraziopeko enpresa eta gainerako erakundeak) errespetatu beharra dute (art. 2). Baita ere hezkuntza zentru publiko eta pribatu eta mass media publikoek (art. 3).

C) Aurretiaz aipaturiko esparruetan hizkuntz arau hau betea izan dadin kolaborazio zein aholkularitzaren sistema antolatze bidea administrazioari ematen zaio (art. 4.1.)

D) Generalitateko Administrazioak teknoleko edo espezialitateko hizkuntzak araudi horren araberakoak izan daitezen saioak egin beharko ditu (art. 4.2.).

Horra hor, modu eroso batean, hizkuntza normatibaren inguruko programa azalduta.

2.5. Etorkizunerako bideak

Aurretiaz esandakoa, euskararen kasuan ere erabilgarria, ezbaierik gabe. Nola, aldiz, formulatu horrelakorik gure kasuan?

Nire iduriko, honetara:

1) Euskal boteregune publikoek, Euskal Komunitate Autonomo zein Nafarroakoak, bakoitzak euskarari buruz duen lege nagusien bila-kaeran, hau da, Euskal Komunitate Autonomoan Euskararen Normal-kuntza legeari bezainbeste Nafarroan ere Euskarari Buruzko legeari hizkuntz araugintzarako zabalera eta segida emanez.

Euskal Komunitate Autonomoaren kasuan, 30. artikuluari irtenbidea emanez eta Nafarroako Komunitatean, 3. artikulua 2. eta 3. zenbakien edukia, zehaztuz eta konkretatuz, biotan ere "de iure" aitortuz, gaur egun "de facto" bizi duguna, hots, Euskaltzaindiaren aholku-emaitza hutsa, honen hizkuntz arau-gomendioen harrerarekin osatuz. Ho-

nela hizkuntz arau-gomendio hori lege-nagusia bihurtuko litzateke euskal boteregune publikoen esparruan.

Adierazbide ederra izango luke, dudarik gabe, Euskaltzaindiak horeen moduko arau garapen batekin. Honek ekarriko luke, ekarri ere, 75. urte bete dituen erakunde honentzako bere lanaren aitortza ederra baina aldi berean ere, lanean jarraitzeko eta sakontzeko deia, orain arteko erantzunkizuna areagotuko bailitzaioko gure Akademiari.

2) Honek eskatuko luke, baita ere, Euskaltzaindiaren aldetik, bere hizkuntz araugintzan jarraitzeko dema bizia, orain arteko arau-gomendio sistema hori garatuz eta Euskaltzaindiaren araugintza antolatuz, maila jerrarkiko baten arabera. Ez ahaztu gainera, lehen esan bezala, legearen igorpena osotasun baten barruan egingo balitz, Catalunyan gertatu den bezalaxe, Euskaltzaindiaren arau-gomendio sistema, juridifikatu egingo litzatekeela. Honek eragin juridikoak sortuko lituzke eta ondorenez beharrezkoa litzateke teknika legegilearen bitartez, igorpen hori aurretiaz zehazturiko eta identifikaturiko "corpus" batera egitea, bestela segurtasun juridiko-linguistikoa apurtuko baikenduke (27).

Honetan, zeresanik ez, lagungarri gerta dakiguke, nahiz eta terminologiaren esparrukoak izan, lehen azalduko Quebec-eko bereizkera, normalizazio eta gomendio arauen artekoa (28).

Beraz, lan dexente du Euskaltzaindiak, behar-beharrezkoa baitu (go-gora bitez Zalbideren hitzak) lan honetan euskaldun gizarteari ere entzutea. Hizkuntz araua, zerbait bada, arau mugikorra da, hiztunen arabera. Aintzakotzat har dezake, beraz, Euskaltzaindiak honako hau, Institut D'Estudes Catalans delakoak bere sasoiari egin zuen moduan, lege 8/1991 horren bidez agintaritza linguistikoa eskuratu eta gero, katalan gizarteari dei berezia egin ziola, 1991. urteko maiatzaren 21ean (29),

(27) Ikus igorpenaren arazoak in GRETEL (Grupo de estudios de técnica legislativa): *La forma de las leyes*, Barcelona, 1986. Editorial Bosch 230.orr eta jarraikoak. Arau juridikoak eta arau linguistikoak desberdinak izanik ere, batetik besterako igorketa aipatzen dugu hemen.

(28) Arau linguistikoaren gainean ikus daitezke, askoren artean bi hauek: BÉDARD, É. eta MAURIS, J.(ed.) *La norme linguistique* Québec, 1983, Conseil de la langue française eta SCHOENI, G., BRONCKART, J.P. eta PERRENOUD, P. (ed.) *La langue française est-elle gouvernable?* Neuchatel-Paris, 1988. Edicions Delachaux & Niestle.

(29) Lehen aipaturiko deia, 22. oharrean. Alderatu ditzagun, ildo beretik, dei horen puntu batzuk, gurean ere aplikagarri direnak: "En els commentaris suscitats arran del Projecte de llei, algú ha posat de manifest una determinada concepció del que és una llengua i del paper que hi té la normativa. En aquest sentit, no post sinó causar neguit de veure que algú dóna entenant que els catalans hem de parlar amb el diccionari i la gramàtica a la mà, a fi d'emprar només i en tot moment els mots i les estructures gramaticals sancionats per l'Acadèmia, ja que fer-ho seria reconeixèr implícitament la incapacitat d'innovació dels parlants -tot negant, doncs, la vitalitat lingüística interna de la llengua. Evidentment, ni

hizkuntz araugintzarako lan horretan lankidetza eskatuz. Bestela, araua, finkatu ezeze, fosildu ere egingo zaigu, nahiz eta gurean, zorionez ala zoritxarrez, *hizkuntza light* versus *hizkuntza arautua* moduko polemikak oraindik orain planteatu ez (30).

3) Botere publikoek berenganatu beharra izango luketen hizkuntz arau-gomendioa hauetan, bestalde ere, badu bere garrantzia, arau-gomendioen edukia eta argitaratze bideak.

Alde batetik, Euskaltzaindiaren hizkuntz arau-gomendioa onartzerakoan, onartze zabala eta dinamikoa eskatuko nuke nik, etorkizunari irekia, Catalunyan egin denaren antzekoa, onartze datatik sor daitezkeen geroko arau-gomendioak modu eroso eta automatiko batez lege maila horretan sartuak izan daitezzen.

Bestaldetik ere, honek berebiziko ahalegina galdatuko lioke Euskaltzaindiari arau-gomendio honen argitalpenean, beharrezkoa baita, hizkuntz arau-gomendio horretan, ondorio juridikoak erdietsi eta gero, arau-gomendio horrentzako zabalkunde arina eta osoa. "Euskera" aldizkari ofizialari dagokiona kendu gabe, bestelako irtenbideetan ere pentsatu beharra daukagu, araugintza hau ahalik eta azkarren eskuragarri izan dezan eguneroko lanean "corpus" hori erabili behar duenak. Zerbait proposatzekotan, orri mugikorren sistema proposatuko nuke nik, edozein arauditan erabiltzen den horietariko tankerakoa, lehenez Euskaltzaindiaren arau-gomendioak batuz, sailkatuz eta gero argitaratuz berrikuntzak gertatu bezain laster, eta arau-gomendio zaharra ordezkatzan duen arau-gomendio berriaren testua harpidetza sistema baten bidez banatuz. Jakin badakit, honetan ere, Euskaltzaindiak mahai gainean dituela proiektu batzuk.

4) Arau-gomendioak, hala ere, zerbait badu bere barnean, indarra da. Arau juridikoetan, gehituta gainera, gizarte osoarentzat sortzen baitituzte ondorioak honako hauek. Esan bezala, lerro hauen bitartez, Euskaltzaindiaren hizkuntz arau-gomendioak botere publikoek onartze oso eta legezkoaren aldekoa erakutsi dut nire burua, uste baitut euskararen "erabilera zuzena" bermatzeko bidean urrats ezinbestekoa dugula hona-

això ho pretén la Llei ni ho han pretès mai els acadèmics, i aquesta concepció del que és l'ús social d'una llengua en una comunitat lingüística i del paper que hi aconpleix la normativa és imputable solament a qui l'ha feta circular."

"La Llei ha de representar un estímul i un compromís perquè aquestes activitats trobin la seva connexió més adient amb el cos de la societat, al servei de la qual es roben tant les institucions polítiques que l'han promulgada i n'han de fer l'aplicació, com el mateix Institut d'Estudis Catalans."

(30) Ikus, perspektiba era desberdinetatik abiatuta, jarraikook: PERICAY, X. eta TOUTAIN, F. *Verinosa Llengua*, Barcelona, 1986, ed. Empúries eta PAZOS, M.L. *La violació del català*, Barcelona, 1992, Tibidabo edicions, S.A.

ko hau. Hala ere, hutsaren hurrengokoa izango litzateke esandako hau, hizkuntz arau-gomendioa legean sartu eta gero, honen ekarpenak zeintzuk izan daitezkeen zehaztuko ez banu.

Egia esan, hementxe datza arazo honen gako eta giltzarri nagusia. Catalunyan, entzun dugunez, agindua eman diote Generalitateari Administrazioak hartutako konpromezua (arauak zaintzearena) garatzeko. Gurean ere, antzeko zerbait eskatuko nuke nik lehen aldi honetan. Araugomendioak gorpuztu, sailkatu eta legearen onarpena eskuratu eta gero, epeka jokatu. Epe laburrean, bizpahiru urtetan, hizkuntz politikaren zuzpertzeta eta zuztapen lan baten bidez euskal administrazioan eta honen menekoetan arau-gomendioa zabaldu, zirkuitoak sortu eta hobetu, bigarren epe baterako utziz, beharrezkoak balira, honen kontrako jokaeren zuzenketa bideak.

Horra hor, bada, nire lehen gogoeta. Laburbilduz, Euskal Komunitate Autonomoak nahiz Nafarroak Euskaltzaindiaren hizkuntz araugomendioa legean barruhartzeko proposamena luzatzen dut hemen, Euskaltzaindiari ere hizkuntz araugomendioa honen sorkuntzan duen erantzunkizuna gogoratu nahi diodala, hizkuntz araugomendio hau garrantzi handikoa baita, eguneroko bizimoduan, euskararen erabilera zuzena neurtzeko parametroak zehazterakoan.

3. EUSKARAREN ERABILERA ZUZENA ETA LEGEGINTZA: AZALPEN LABURRA

Orain arte euskararen “erabilera zuzenerako” parametroak ezarri nahian ibili bagara ere, ordua dugu, gaingiroki bederen, gure bigarren aurtuari heltzeko, hau da, erabilera zuzena maila desberdinetan “nola bermatu” horrek planteatzen digun arazoari aurre egiteko.

Egia esan, aitortu beharra daukat nik neuk ez dudala eta ez dut uste inork daukanik ere honetarako konponbide magikorik. Gainera, gaur entzule zaituztedan guztion korapiloak askatuko ez ditudalako segurtasun osoa ere badaukat. Alor honetan, hala ere, badugu gure erabilera zuzenaren bigarren eremua, hau da, bere kasuan kasuko aplikazioarena.

Dudarik niminoena ere ez dago, egun Estatuak hizkuntzaren zabal-kunde prozesuan jokaten duen zereginaz. Gure kasuan, euskarak, Estatu propio baten jabe ez bada ere, baditu bere subiranotasun mailak, urriak izan arren.

“Urriak” esan dut eta berehalakoan zuetariko edozeinek galdetuko du ea beste behin ere gure euskararen inguruko legediaren ahuleziaz mintzatuko natzaizuen.

Pisu handikoa izanik ere horixe, ez noa hortik gaurko eginkizun honetan. Askoz jaramon handiagoa egingo diot, besteak beste, euskararen erabilera zuzenaren ikusmiratuk gure legegintzan eman den produkzioa aztertzeari.

Hasteko, zera esan behar: produkzio hori erabat baldintzaturik datorrigula, Euskal Herriko Hegoaldean bederen, eskumen edo kompetentzien banaketa dela medio. Hortxe dago, egon ere, eta adibide gisa, Erregistro Zibila dela eta, Espainiako Justizia Ministeritzak ofizialduriko euskarazko testuak. Bitxia izanik ere, indar osokoa.

Bigarrenez, produkzio hori, neurri handi batean bederen, itzulpenaren morrontzan bizi dela errepikatu behar, honek dituen ageriko aje eta zama guztiekin.

Hirugarrenez, produkzio hori, Espainiako sistema juridiko konkretuaren barruan egin dela nagusiki, horretarako hausdura elementuak tartean ere izan arren, hala nola, Europako Komunitatearen legedia, euskaldunok gune juridiko propio baten eraikuntzan amankomunean lan egiteko erabil genezakeena.

Aurreko baldintzak ikusita, euskararen “erabilera zuzena” baino, zuetariko askok, erdaraz sortu eta gero, euskaraz ematen den testugintzaren euskararen “erabilera zuzenaz” ez ote dugun gogoetatu behar galdetuko didazue.

Ni neu ere horretan nago. Baina horretan ere ez nuke bukatuko kontua, uste baitut gure legegintzan haruntzago joateko eskubidea dugula, “erabilera zuzenaren” aitzakian.

Alor honetan, hala ere, euskara batez baino euskara molde eta hizkera desberdinez hitz egin daiteke, legegintzak eskabide berarizkoak baititu lan egiteko orduan. Dena den, ez da hori gure gaurko kontua, ez bada gogoeta txiki batez, arlo honetan “erabilera zuzena” bermatzeko zer egin genezakeen azaltzea (31).

(31) Ikus GÉMAR, J.C. *Les trois états de la politique linguistique du Québec - D'une société traduite à une société d'expression* Québec, 1983, Conseil de la Langue Française, Dossiers, 17. zenbakia. Bereziki, 148. orrialdea: “Or, plus que les mots –victoire à Pyrrhus–, ce sont les mentalités qu’il faut réformer. En effet, ce n’est pas tant la pratique de la langue juridique –les termes techniques ou jugés tels– qu’il conviendrait d’amender, mais plutôt la langue elle-meme, entreprise d’une tout autre ampleur. On peut toujours faire changer à

Itzultze lanetik abiatuta, hona hemen SPARER-ek formulaturikoa, testu juridiko baten ikuspegitik begiratuta, hizkuntzaren erabilera zuzena itzultze lanetan neurtzeko:

- “1) Oinarrizko irizpidea: komunikaziorako eraginkortasuna.
- 2) Terminoen zehaztasuna.
- 3) Segurtasun juridikoaren irizpidea.
- 4) Fideltasun juridikoaren irizpidea” (32).

Honetan zehazten du jurista honek “erabilera zuzena” arlo juridikoaren testuetan.

Eta honela zehazteak ere, beste ideia batera ekartzen gaitu. “Erabilera zuzena” kontzeptua erlatiboa eta ebolutiboa izanik ere, esanguratsu bihurtzen da berau neurtzerakoan, bestelako elementu bat, hain zuzen ere, diskurtsoarena. Euskararen erabilera zuzena ez da hitzena bakarrik, diskurtsoa ere bitartean dugu kontzeptu hau osatzerakoan (33).

Neurriak neurri, guk ere itzultzaileak baditugu hor tartean legegintza erakundeetan. Hauen lana hobetzea, euskararen “erabilera zuzenaren” aldetik behintzat, ez litzateke lan alperria izango.

Lehendabizikoz, itzultzaile horien zeregina indartu beharko genuke. Bigarrenaz, hauei ere, “erabilera zuzenaren” elementuak ahalik eta modu eskuragarrienean eskaini, beraiek ere jakin behar dutelako legearen hizkuntza izaten dela, ezbairik gabe, bestelako hizkuntz juridiko-administratiboen erabilera zuzena markatzen duen giltzarria.

Esanda dago, bide beretik ere, honako hau:

un juriste, un homme de loi sa façon de dire et d'écrire. Cela reste du domaine du possible. Plus difficile sera la réforme de sa manière de penser, de rédiger, ainsi que l'exemple des juges le démontre: anciens avocats eux-mêmes, la plupart d'entre eux continuant à s'exprimer comme tels dans leurs jugements. Ici la barrière psychologique constitue un obstacle quasiment insurmontable.”

(32) AA. VV. Actes du colloque *TRADUCTION ET QUALITÉ DE LANGUE*, Québec, 1983, Conseil de la Langue française. Honen barruan ikus, SPARER, M. Traduction des textes législatifs: contraintes et enjeux, 98 orr. eta jarr.

(33) AA. VV. Actes du colloque *TRADUCTION ET QUALITÉ DE LANGUE*, Québec, 1983, Conseil de la Langue française. Honen barruan ikus, MAURIS, J. Pour une politique concertée de la qualité de la langue, 195.orr. eta jarr.

“Legearen eta erreglamentuaren kalitate linguistikotik eratorzen da, neurri haundi batean, Administrazioaren hizkuntz erabilera zuzena” (34).

Legeak, ordea, bestelako irtenbideak ere eskatzen ditu euskararen ikuspegitik. Honen erabilera zuzena bermatzeko hizkuntz desberdinetan eman diren aldebereko idazketak eta bertsioak asmatu beharrean gaude eta horrekin jokoan jarri, baita ere, aspaldi hontan teknika legegile berriek ematen dizkiguten aterabideak. GRETEL moduko taldeek arreta berezia jarri dute honelako prozesuetan eta ezagunak ditugu Estatu mailan hauen saioak (35).

Berrikitan izan dugu baita ere, Catalunya Generalitateak egindako esku liburua, arauak idazteko oinarriak finkatuz, katalanez egokituta. Gurean, lehen saioa ere hortxe dugu, Eusko Jaurlaritzak emandako 1993ko apirilaren 6ko agindua, legegilearen jokabideak euskaraz eta erdaraz onartu direla (36).

Bukatzeke eta Jose Luis Lizundia sailkideak bere lanari heldu baino lehenago, zilegi bekit gaur azaldu nahi izan dizuedan kontu honen laburpen gisa, Ixidor Mari katalanaren hitz batzuk honetara ekartzea:

“Irizpide berria behar dugu, zuzen edo okerraren gainekoa baino, barietate eta erregistro bakoitzaren gizarte eskakizunari egokituta. Ez da irizpide gabe ibiltzea, ez da ere maila jaistea. Areago esanda, egokitasunaren irizpidea gogorragoa da arau zuzentasunarena baino: gramatikaren arabera zuzena den testua desegokia gerta daiteke, zehaztasun terminologikoaren ezaz, espezializazio larregiz, ahoz zein idatzizko zabalkunderako baldintza egokien ezaz... eta abar.

Honela, standarizazio prozesua (eta hizkuntzaren erabilera zuzena ere —esango nuke nik— Marirena parafraseatuz) ez da ikusiko arauaren

(34) Ikus ARCHAMBAULT, A. eta MAGNAN, M.: *La qualité de la langue dans les domaines de l'enseignement, de l'administration des médias et de la publicité* Conseil de la langue française. Notes et documents 15, Québec 1982.

(35) Ikus igorpenaren arazoak in GRETEL (Grupo de estudios de técnica legislativa): *La forma de las leyes*, Barcelona, 1986. Editorial Bosch eta *Curso de técnica legislativa Gretel*, Madrid, 1989. Centro de Estudios Constitucionales. Baita ere bide eta filosofia beretik CORONA FERRERO, J.M., PAU VALL, F. eta TUDELA ARANDA, J. (Coord.) *La técnica legislativa a debate*, Ed. Tecnos, Madrid, 1994.

(36) GENERALITAT DE CATALUNYA, DEPARTAMENTO DE GOVERNACIO: *Manual d'elaboració de les normes de la Generalitat de Catalunya*. Col·lecció Manual de Normes i Procediments, Barcelona, 1992.

Euskal Herriari dagokionez, adierazgarria, baita ere, jarraikoa: “AGINDUA, 1993ko apirilaren 6koa, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko martxoaren 23an egin zuen bilkuran onartu eta Lege Egitasmoak, Dekretuak, Aginduak eta Erabakiak lantzeko jokabideak onartzen direneko Akordio argitara dadila agintzen duena” (EHAA - 1993, apirilak 19).

eta erabileraren arteko desbideraketa eta gatazka legez, benetan den honako hau bezalaxe baino: Hizkuntzaren erabilera desberdinetan aberastu eta finkatze prozesua, hizkuntz komunitate osoaren beharizanen arabera” (37).

(37) MARI, I. “Un horitzó per a la llengua. Aspects de la planificació lingüística.” Barcelona 1992 Editorial Empúries: “necessitem un nou criteri, ja no de correcció/incorrecció, sinó d’adequació a les convencions socials pròpies de cada varietat i cada registre. No es tracta de suprimir tot criteri, ni de rebaixar l’exigència. Segons com, encara és més rigorós el domini de les normes d’adequació, ja que ést molt més ampli que el de simple correcció normativa: un text gramaticalment correcte pot ser inadequat per manca de precisió terminològica, per un grau excessiu d’especialització, perquè no s’ajusta a les condicions orals o escrites de difusió ... etc.”

“D’aquesta manera, ... el procés d’estandardització no será vist com un conflicte entre la norma i les desviacions de l’ús, sinó com el que’s en realitat: l’enriquiment i la consolidació de les convencions en els diversos usos de la llengua, en funció de les necessitats de tota la comunitat lingüística.” 96-97.orr.